



IRAURGI SASKI BALOIA
AZPEITIA - AZKOITIA - ZESTOA



IRAURGI SASKI BALOIA
AZPEITIA - AZKOITIA - ZESTOA

IRAURGISB TOPAKETA

Azpeitia 2015ko maiatzaren 23 eta 24a
("2004-2005-2006" Alebin eta Benjaminak)



IRAURGI SASKI BALOIA
AZPEITIA - AZKOITIA - ZESTOA



IRAURGI SASKI BALOIA
AZPEITIA - AZKOITIA - ZESTOA

AURKIBIDEA

1. Araudia.....	3
2. Mailak.....	3
3. Jokatzeko sistema.....	3
4. Jokalari kopurua.....	4
5. Sailkapenerako irizpideak.....	4
6. Ekipazioak.....	4
7. Puntueltasuna.....	5
8. Zigorak - Zigor araudia.....	5
9. Jokalarien izenematea.....	5
10. Arbitroak.....	6
11. Gora-jotzeak.....	6
12. Lehiaketa batzordea.....	6
13. Jokoaren egitaraua.....	6
14. Baloiak.....	6
15. Jokalekuak.....	7
16. Aseguruak.....	7
17. Izena emateko datuak.....	7-8
18. IRAURGI SB Topaketarako ostatuak.....	9
19. Jokalekuen kokalekua eta mapak, argazkiekin.....	10-11
20. IRAURGI SB Topaketarako hitzartutako jatetxeak.....	12-13
21. Ekitaldian parte hartu dute taldeak.....	14
22. IRAURGI SB Topaketan lagundu duten enpresak.....	15

AZPEITIA - AZKOITIA - ZESTOA

ARAUDIA

1. Araudia

Saskibaloio IRAURGI SB Topaketa Pasareako arauen bidez arautuko da, ondorengo xehetasunekin. 8 minutuko 4 laurden, 2. Eta 3. Laurdenen artean 5 minutuko atsedena erekin. Denek laurden oso bateko atsedena hartu beharko dute lehenengo hiru laurdenen artean. Denek jokatu beharko dute laurden oso bat lehenengo hiru laurdenen artean. Denbora jarraia izango da, laurden bakoitzeko azken minutua izan ezik. Hutsarte (*minutukoa*) bakarrik eskatu ahal izango da, eta aukera hori hirugarren edo laugarren laurdenaren azkenengo minutuan bakarrik izango da. Berdinketa gertatuko balitz partidan, talde bakoitzak egindako bi jaurtiketa libreren bidez erabakiko da, harik eta irabazlea gertatzen den arte.

2. Mailak

Lehen urteko Alebin, Mutilak (**2004. Urtean jaiotako mutilak**)

Lehen urteko Alebin, Neskak (**2004. Urtean jaiotako neskak**)

Bigarren urteko Benjamin, Mutilak (**2005. Urtean jaiotako mutilak**)

Bigarren urteko Benjamin, Neskak (**2005. Urtean jaiotako neskak**)

Lehen urteko Benjamin, Mutilak (**2006. Urtean jaiotako mutilak**)

Lehen urteko Benjamin, Neskak (**2006. Urtean jaiotako neskak**)

3. Jokatzeko sistema

Gure nahia da maila bakoitzean 8 talde izatea, eta beraz, ez da maila bakoitzerako zortzi talde baino gehiagoren izenematerik onartuko. Asmo horrekin jarraituz, 4 taldeko bi multzo izango dira, eta denek denek aruka jokatuko dute. Horietatik bi lehenengoak final-aurrekoetara pasatuko dira. Mailaren batean ez balira 8 talde osatuko, antolakuntzak egokitu egingo du jokatzeko sistema.

Partiden puntuazioa

* Irabazitako partida: 2 puntu.

* Galdutako partida: puntu bat.

Partiden iraupena

Partida bakoitza 8 minutu jarraiko lau laurdenekoa izango da (laurden bakoitzeko azkenengo minutua izan ezik).

Atsedendaien iraupena

5 minutu, bigarren eta hirugarren laurdenen artean.

4. Jokalari kopurua

Talde batek, gehienez, 12 jokalarieren izenak jarri ahal izango ditu partidaren aktan, eta gutxienez 8 jokalarierenak. Adeirazitakoak baino jokalari gehiagoren izenak jarriz gero, denek ezingo dituzte partidak jokatu, gehienez 12 jokalarik jokatzeko aukera izango baita. Adinagatik talde mistoak baldin badaude, adinik handieneko jokalaria dituen multzoan jokatu du talde horren (parte hartu nahi duten mailari dagokion adina baina handoagoa dute 2 jokalari baldin baditu, gorakoko mailan jokatu du). Taldean mistoak badin badira sexuaren arabera, mutilen multzoan jokatu dute, adinagatik mistoak diren taldeek bezalaxe.

5. Saikapenerako irizpideak

1. Fasea (Liga)

Azken saikapenean bi talde edo gehiagoren artean berdinketa gertakuko balitz, egoera hori gainditzeko erabiliko diren saikapen-irizpideak honako hauek izango dira:

- 1.- Aldeko eta aurkako puntuen aldea, Ligako partida guztiak kontuan izanda.
- 2.- Lortutako puntu kopuru handiena, Ligako partida guztiak kontuan izanda.
- 3.- Zozketa informatikoa.

2. Fasea (Kanporaketak)

Azken fasean partidaren bat berdinketarekin amaitzen bada, jaurtiketa libreen bidez erabakiko da zuzenean, luzapenik egin gabe. Pasarelaren arauen arabera, Jaurtiketa libreak egingo dituzten bi jaurtitzailleak partida amaitu duten 5 jokalarien artean aukeratu beharko dira. Jaurtiketa libreak botatzen diren bitartean, talde bakoitzeko 5 jokalaria erdiko zirkuluan egongo dira, eta talde teknikoa eta jokalarien ordezkioak aukietan egongo dira, jokurako esparrutik kanpo.

6. Ekipazioak

Elastiko guztien zenbakia izango dute, eta zenbaki horiek bat etorri beharko dute partidaren aktarekin. Zenbakiak bizkar aldetik jarriko dira. Jazkiak berdinak balira, bisitari moduan jokatzeko duen taldeari (partidaren izenburuan bigarren datorrenari) bularreko edo peto bat emango zaio partida horretarako.

7. Puntueltasuna

Ordutegia zorrotz betako da. Taldeek prest egon beharko dute partida hasi baino 15 minutu lehenago.

8. Zigorrak - Zigor araudia

Teknika baten ondorioz jokalekutik kanporatua den jokalariai partida bate do gehiagoko zigorra jarriko zaio, edota lehiaketatik kanpo ere utziko da (kanporatzearen arrazoia arabera).

Talde bat 3 jokalarirekin geratzen bada, partida bertan behera utziko da eta partida horren emaitzaren erabakia Lehiaketa Batzordearen esku geratuko da. Berdinketa balego, eta sailkapenerako irizpide moduan, "teknikoen" pilaketak balio negatiboa izango du sailkatzerakoan (Fair Play) eta "teknika" bakoitzak -1 punturen balioa izango du. Puntu horien zenbaketa antolatzaileen zigor-txostenentan oinarrituta bakar-bakarrik egingo da.

Talde batek portaera oldarkorra izango balu lehiaketa garaian (arbitroek harutako erabakien aurrean protesta desegokiak, aurkako taldeen arduradunekin istiluak, eta batik bat antolaketa arduradunekin...) norgehiakokatik kanporatua izan ahalko da.

Gipuzkoako Lurralde Federazioan emandako jokalaria izango balira jarrera idarkor horiek dituztenak, Federazio horren jakinean jarriko dira getaerak, egileen izen eta abizenekin, eta Federazio hori eta bere zigor-organon izando dira diziplina-zigorrak jarri ahal izango dituztenak.

Taldeen ordezkarian izango dira behen jokalariek arbitro, taldekiede, aurkari, ikusle, antolatzaile eta kirol instalazioetako materialen (aldagela, eserleku, joku-esparru...) aurrean duten portaera eta jarreraren erantzule.

Antolatzaileek ikuskatu egingo dituzte aldagelak partida bakoitzaren aurretin eta ondoren, talde bakoitzaren arduradunarekin batera, egiaztatzeko aldagela horiek behar den moduan erabiltzen direla. Halaber, honek sinatu egingo du bain eserlekuetan, aldageletan edota joku-esparruan edozein kalte gertatuko balitz, kalde edo hondaketa hori sortu duen pertsona, taldea eta ordezkaria izango direla gertatutako kalte horien erantzuleak.

9. Jokarien izen ematea

Jokatu ahal izateko, jokalaria bakoitzak **IRAURGI SB Topaketaren** catering-ean zehaztua datorren zenbatekoa ordaindu behar du (*Ikusi 17. puntua, Izena emateko datuak*).

Taldea osatzen duten kide guztiek (jokalariek, entrenatzaileek eta arduradunek) diru kopuru hori sartua izan beharko dute catering horretan, talde horrek ekitaldi honeta esku hartu ahal izateko. Izena aurrean ematen duten 8 taldeek izango dute parte hartzeko eskubidea.

10. Arbitroak

Bai arbitroak, bai mahaia osatuko duten kideak afizionatuak izango dira (IRAURGI SB klubarekin zeriikusia duen jendea izango da). Partida bakoitzean gutxienez arbitro bat eta aktaren arduradun bat, kronometratzaile lanak ere egingo dituena, izango dira. Arbitroak izango dira falta eta arau-hausteak adieraziko dituztenak, jokoan eta jaurtiketa libreetan saskiratzeak baietsi edo baliogabetuko dituztenak, eta arau hauen arabera zigorrak zehaztuko dituztenak. Mahaiko kidea da partidaren aktaren arduradun eta erantzulea, bai eta jokatutako denboraren kontrola eramango eta epealdi bakoitzaren amaiera adieraziko dueña ere. Lortutako puntuen erregistro kronologikoa eramango du, eta jokoan lortutako saskiratzeen eta jaurtiketa libreetan lortutakoaren kontrola ere bai. Arbitroak adierazko dituen faltak ere jasoko ditu.

11. Gora-jotzeak

Talderen batek kexak edo erreklamazioak baldin baditu, **IRAURGI SB Topaketaren** arduradunekin hitz egin beharko du. Antolatzaileek ez dute onartuko arbitroen jardueraren ondorioz sortutako protestarik.

12. Lehiaketa Batzordea

Antolaketa batzordeko kideren bat beti izango da partidak jokatu behar diren jokalekuetan. Lehiaketa Batzordeak hartutako erabaki guztiak apelaezinak izango dira, eta parte hartzaile guztiek errespetatu beharko dituzte erabaki horiek, inolako salbuespenik gabe.

13. Joku egitaraua

Lehiaketa Batzordeak beretzat gordetzen du jokatuko diren partiden egitarauan aldaketak egiteko eskubidea, bai taldeen banaketari dagokionez, bai jokaleku eta ordutegiei dagokienez. Aldaketen gaineko informazioa taldeen arduradunei jakinaraziko zaie.

14. Baloiak

Antolatzaileek 3 baloi utziko dizkiote talde bakoitzari, partida aurreko beroketa saioak egiteko, eta partidaren hasieran jaso egingo dira baloi horiek.

15. Jokalekuak

Jokaleku guztiak estaliak izango dira, baina eguraldia ona baldin bada baliteke partidaren bate do beste aire libreko jokalekuren batean egiteko erabakia hartzea.

16. Aseguruak

Taldean aduradun guztiek aseguratuta izan beharko dituzte beren jokalariaik, bai jokaleku baruan, baita konpoan. Partehartzaile guztiek berekin ekarri beharko dute Gizarte Segurantzako txartela edota aseguru pribatu batekoa. **IRAURGI SB Topaketaren** Batzordeak ez du izango lesio, gaisotasun, galera edo lapurreten inolako erantzukizunik.

17. Izena emateko datuak

Bete behean datorren orria, eta bidali diru-sarreraren kopi bat orrialde honen behealdean agertzen den korreora. Diru-sarrera egiterakoan, taldearen izena, urtea eta sexua adierazi. Izenak emateko azken eguna **IRAURGI SB TOPAKETA** egingo den data baino 20 egun lehenagokoa da.

Adibidea: Iraurgi SB 2004 Mutilak

Diru-sarrera egiteakoan jarri beharreko datuak

Banketxea: Kutxabank

Kontu zenbakia: 2095 5029 10 9113707527

IBAN Kodea: ES33 2095 5029 10 9113707527

Hauek dira gure datuak, zerbait gehiago jakin nahi izane gero

✉ topaketaisb@gmail.com edo 📞 667.733.953 zenbakira deituz

Catering del IRAURGI SB Topaketa

CATERING-A (Plaza Nagusian)

Ikus cateringaren kokapena 10 edo 12 orrian

1. Platerra: Makarroiak tomate eta txorizoarekin
2. Platera: Albaondigak saltsan
Postrea: Jogurra
Ogia + Ur minerala
20,00 €/ pertsonako
(840 pertsonarentzat)

IZENEMATE-ORRIA

Taldea

Taldearen izena:	
Taldearen maila:	

Jokalariak

	Izena	2 Abizenak	Sexua	Urtea	Zbk.
1					
2					
3					
4					
5					
6					
7					
8					
9					
10					
11					
12					
13					
14					

Taldearen entrenatzaile edo arduradunak

	Izena	2 Abizenak	Mugikor zk	Kargua
1				
2				
3				
4				
5				

18. IRAURGI SB Topaketarako ostatuak

Talde bakoitzak egin beharko ditu bere erresebak



Camino de San Juan,16
20740 Zestoa (Gipuzkoa)
☎ 943.14.70.40
<http://www.hotelarocena.com>
reservas@hotelarocena.com



Loiola auzoa, 8
20730 Azpeitia (Gipuzkoa)
☎ 943.02.50.26
<http://www.hotelarrupe.org>
hotelarrupe@sjloyola.com



HOTEL LOIOLA
Loiolako Inazio Hbda. 47
20730 Azpeitia (Gipuzkoa)
☎ 943.15.16.16
<http://www.hotelloiola.com>
loiola@hotelloiola.com

<p>Oheak: 150 Pents. erdia: 38,00 €/ Pax Garraioa behar da</p>	<p>Oheak: 81 Pents. erdia: 39,00 €/ Pax</p>	<p>Oheak: 50 Pents. erdia: 35,20 €/ Pax</p>
---	--	--

<p>Zumaiako Turismo Etxea ☎ 943.14.33.96</p>	<p>Getariako Turismo Etxea ☎ 943.14.09.57 ☎ 943.89.60.24</p>	<p>Zarauzko Turismo Etxea ☎ 943.83.09.90</p>	<p>Orioko Turismo Etxea ☎ 943.83.55.65</p>
---	---	---	---



Albergue de santuario
Loiola auzoa, 16
20730 Azpeitia (Gipuzkoa)
☎ 943.02.50.00
<http://www.sjloyola.org>
santutegia@sjloyola.org

Azpeitiko eta eskualdeko Turismo Etxea

<http://www.urolaturismo.net>
☎ 943.15.18.78




Loiolako Inazio Hbda.
20730 Azpeitia (Gipuzkoa)
☎ 943.81.10.34
<http://www.jesus-maria.net/loyola/casajesusmaria@gmail.com>

<p>Oheak: 130 Pents. erdia: ¿? €/ Pax</p>	<p>Oheak: 68 Pents. erdia: ¿? €/ Pax</p>
--	---


19. Jokalekuen kokalekua eta mapak, argazkiekin

MAPA	AZPEITIA
	
	<p>Mapan duen kokalekua (1. puntua)</p> <p>AZPEITIKO UDAL KIROLDEGIA (3 jokaleku)</p> <p>Polígono Landeta s/n 20730 Azpeitia (Gipuzkoa)</p>
	<p>Mapan duen kokalekua (2. puntua)</p> <p>IRAURGI IKASTETXEA (Jokaleku bat)</p> <p>Jose de Artetxe 4 20730 Azpeitia (Gipuzkoa)</p>
	<p>Mapan duen kokalekua (3. puntua)</p> <p>UROLA IKASTOLA (3 jokaleku)</p> <p>Perdillegi 3 20730 Azpeitia (Gipuzkoa)</p>
	<p>Mapan duen kokalekua (4. puntua)</p> <p>KARMELO ETXEGARAI IKASTOLA (Jokaleku bat)</p> <p>Perdillegi 2 20730 Azpeitia (Gipuzkoa)</p>

MAPA



AZKOITIA




Mapan duen kokalekua (1. puntua)

AZKOITIKO UDAL KIROLDEGIA (Jokaleku bat)
Ibai Ondo 22
20720 Azkoitia (Gipuzkoa)



MAPA



ZESTOA





Mapan duen kokalekua (1. puntua)

ZESTOAKO UDAL KIROLDEGIA (Jokaleku bat)
Plaza Manuel Uztapide 5
20740 Zestoa (Gipuzkoa)



20. IRAURGI SB Topaketarako hitzartutako jatetxeak

MAPA	AZPEITIA
	<p>IRAURGI SASKI Taberna (1. puntua) Ildefonso gurrutzaga 10 http://www.iraurgisb.com 20730 Azpeitia (Gipuzkoa)</p> <p>Erresebak egiteko: 943.080.416 (70 Pax) Errese., ekitaldia bainio 10 egun lehenago</p> <p>SASKI MENUA Gulen entsalada epela edo Frijituak Borobila saltsan edo Legatz arrautzeztatua Ijito besoa Kafea (Ura, Sagardoa edo Añaren ardo ondua)</p> <p>Prezioa: 18,00 €/ Pax (familiakoak)</p>
<p>Azpeitiko kiroldegiko Taberna (2. puntua) Poligono Landeta s/n http:// 20730 Azpeitia (Gipuzkoa)</p> <p>Erreserbak: 636.824.474 Gurutze (80 Pax) Errese., ekitaldia bainio 10-egun lehenago</p>	<p>KIROLDEGI MENUA Entsalada Mistoa Frijituak + Txahal saiheskia Postrea Kafea (Ura, Sagardoa edo Ardoa)</p> <p>Prezioa: 15,00 €/ Pax (familiakoak)</p>
<p>PASTORKUA Jatetxea (3. puntua) Jose de Artetxe 13 http://www.pastorkua.com 20730 Azpeitia (Gipuzkoa)</p> <p>Erreserbak: 943.811.857 Jabier (250 Pax) Errese., ekitaldia bainio 10 egun lehenago</p>	<p>PASTORKUA MENUA Entsalada Mistoa edo Etxeko Frijituak Bakailaoa txingarretan edo Txahal entrekota Etxeko Gazta tarta edo Etxeko Pantxineta Kafea (Ura, Sagardoa edo Ardoa)</p> <p>Prezioa: 20,00 €/ Pax (familiakoak)</p>
<p>PATXO Erretegia (4. puntua) Jose de Artetxe 17 http:// 20730 Azpeitia (Gipuzkoa)</p> <p>Erreserbak: 943.812.040 M^a Jose (80 Pax) Errese., ekitaldia bainio 10 egun lehenago</p>	<p>PATXO MENUA Entsalada Mistoa edo Itsas Paella Oilako errea edo Saiheskia txingarretan Postrea (Ura, Sagardoa edo Etxeko ardoa)</p> <p>Prezioa: 15,00 €/ Pax (familiakoak)</p>

MAPA**AZPEITIA****HOTEL LOIOLA (punto 6)**

Begiratu 9. orrialdean

Erreserbak: 943.151.616 (100 Pax)
Errese., ekitaldia bainio 10 egun lehenago

MENÚA

Jabugo urdaiazpikoa + Foiea + Askotariko
frijituak + Onddo nahaskia
Aukeratzeko

Legatza **edo** Zapotxo **edo** Txipiroiak plantxan
edo Azpizuna **edo** Txuleta
Postrea eta Kafea

Prezioa: 35,00 €/ Pax (**familiakoak**)

SANAGUSTIN Kulturgunea (5. Punto)

Plaza Nagusia

[http:// www.sanagustinkulturgunea.net](http://www.sanagustinkulturgunea.net)

20730 Azpeitia (Gipuzkoa)

Erreserbak.: 943.105.220 (150 Pax)
Errese., ekitaldia bainio 10 egun lehenago

UDABERRI MENUA

Kukuilu entsalada Perretxiko eta Foiearekin
Bakailao kokotzak **edo** Solomo iberik. takoak
Sagar Pudina
Kafea (Ura, Sagardoa **edo** Ramirez ardoa)

Prezioz: 20,00 €/ Pax (**familiakoak**)

MAPA**AZKOITIA****JOSEBA Jatetxea (1. puntua)**

Floreaga jauregia, Aizkibel 10

<http://www.josebajatetxea.com>

20720 Azkoitia (Gipuzkoa)

Erreserbak: 943.853.412 (80 Pax)
Errese., ekitaldia bainio 10 egun lehenago

JOSEBA MENUA

Iberikoak + Kroketak + Perretxikoak **edo**
Barazkien Menestra

Iberiko Karrilerak **edo** Entrekota patatekin
Postrea

Kafea (Ura, Sagardoa **edo** Ardoa)

Prezioa: 20,00 €/ Pax (**familiakoak**)

21. Ekitaldiean parte hartu duten taldeen balorazioa

Parte hartzaile guztiek oso modu positiboan baloratu dute ekitaldia, eta berriro ere parte hartzeko prest daude.

Joan den 2014 ko ekainaren 21 eta 22an txapelketa polita jokatu zen Azpeitian, Azkoitian eta Zestoan, Iraurgi SBk antolatuta, 2002 eta 2005 artean jaiotako neska eta mutilei bideratua. Zalantzarik gabe, esperientzia handia izan zen, eta Euskal Herri osotik eta Kantabriatik etorritako 10 taldek hartu zuten parte. Saskibaloiaz gozatu zuten eta esperientziak elkartrukatu zituzten, giro ezin hobean. Horren adibide da talde guztiek soso modu positiboan baloratu dutela esperientia, **10 etik 7,74ko** nota horretan hainbat atal hartzen ziren kontutan, halanola ekitaldiaren antolaketa, prestonalaren adeistasuna, arbitroak, jokalekuak, janaria, partiden ordutegia edota baloiak.

Talde guztiek adierazi dute berriro ere etortzeko gogoia dutela eta *Iruñeako San Ignazio kuletik estaen zuten moduan, edital honek “urte amaierako klasiko bat ian beharko luke gaztetxo guztientzat”.*

Parte hartu duten hainbat talde: Pielagos, San Ignacio, Easo, Tabirako, Baskonia, Txingudi, B.K.L. Beasain, Irabia Ikastetxea, Deustuko Salesiarrak, ea..

IRAURGI SASKI BALOIA
AZPEITIA - AZKOITIA - ZESTOA

22. IRAURGI SB Topaketaren laguntzaile diren enpresak



fundibide



IRAURGI SASKI BALOIA
AZPEITIA - AZKOITIA - ZESTOA



gipuzkoa



SASKI
TABERNA



legarda



Zestoako Udala



Joseba
JATETXEA

sanagustin
kulturgunea



HOTEL LOIOLA

